

«Nazio-estatuaren eredua errepikatu nahi badugu, ez dugu irteerarik»

ETIKA. Etika, politika eta bakearen arteko uztarketa esanguratsuaz mintzatu zen atzo Jose Maria Setien gotzaina, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eskutik

Pello Urzelai | DONOSTIA

Ordenamendu juridiko-politikoaren balizko aldeketari begira hitz egin zuen atzo Jose Maria Setien gotzainak atzo Donostian. Gogoeta luzea eta ñabardurez josia plazaratu zuen Setienek *Etika, politika eta bakea Euskal Herrian gaur* izenburupean, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak gonbidaturik, Donostiako Kutxako areto betean. Politika etikaren ikuspuntutik aztertzearen zuzentasunaz abiatu zen, estatuaren zereginaz eta guztion ongiaz aritu zen ondoren eta estatuaren nazio aniztasunaren arteko loturaz hainbat gogoeta egin zuen hitzaldiaren amaieran, bidean hainbat kontzeptu argitzen saiatu zen bitartean. Amaierako gogoetak Euskal Herriaren egungo egoera politikoarekin lotuta zeuden, hain zuzen, ordenamendu politiko-juridikoaren aldaketa aukerarekin (Setienek proposamen zehatzik aipatu ez bazuen ere).

Setienek behin baino gehiago nabarmendu zuen Euskal Herriaren aniztasuna «sakona» dela, baita nazio ikuspuntutik ere. «Aniztasun nazionalaz» hitz egin zuen. Eta aniztasun hori kontutan hartuta ohartarazi zuen estatu eredu batzuen arrikuaz. Burujabetza nazio aniztasunaren zerbitzuan jartzearen alde agertu zen, «estatu nazionalistak sortzeko tentaldian erori gabe». Estatuak edota edozein burujabetzak «nazionalitate bakoitzeko eskubide zibikoak» bermatu behar lituzkeela argudiatu zuen. «Subiranotasunak, edozein izanik ere gauzatuko lukeena, errelitate soziala osatzen duten gizabanakoen eta kolektiboaren oinarriko giza-eskubideen zerbitzuan egon behar du», gehitu zuen aurrerago. Hitzaldia amaitutakoa entzule batek egindako galdera bati erantzunez argiago azaldu zuen. «Nazio anitza izan arren, nazio bakar baten isla den estatuaren eredua» gaindituta iritzi ondoren etorkizunari begira honako oharpena egin zuen: «Eredu hori errepikatu nahi badugu ez dugu irteerarik». Galdera herri kontsulta bat egiteko eremuaz izan zen. Hori zehaztu aurretik galdetu beharrekoa eta galdera horren bidez lortu nahi dena argitu behar dela erantzun zuen.

Bakea politikaren helburutzat



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS
Jose Maria Setien gotzaina, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak antolatutako hitzaldiaren hasieran.

jo zuen Setienek, «bakea giza-elkarbizitzaren eskaera etikoa delako». Halaber, politika guztion ongiaz zerbitzuan bada go ez du ahaztu behar bakean oinarritu behar dela, Setienek iritzi. Ildo beretik, beharizan etikotzat jo zuen askatasunaren

benetako eskubidea. Aurrerago, pentsamendu askatasunaren ikuspuntutik egungo ordenamendu juridiko-polititikoaren «izaera demokratikoa» zalanztan jartzen dela ohartarazi zuen. «Aniztasun horretatik eragindako haustura ezin izan-

go da bateragarria herri baten zatiketa politikoarekin, zeinak bere ezberdintasunen gainetik bere batasun identitarioari eutsi nahi dion», azaldu zuen.

Azkenik, bakearen helburua gogoan izanik adostasun eta irtenbideen bilaketari beharrezko iritzi zion, aldaketa instituzionala «aldaketa sozialari» egokitu behar zaiola gogorarazi. Halaber, «denok biltzen duen elkarriketa» ezinbestekoa izango dela gogoratu zuen.

Hitzaldia osorik argiratzeko asmoa agertu zuen Jose Maria Urkia Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen lehendakariak hitzaldiaren hasieran. Aurkezpena Maria Angeles Larrea aipatu erakundeko lehendakari ohiak egin behar zuen, baina ezin izan zen egon osasun arazoak zirela medio eta harek prestatutako agurra Emilio Mujika elkartearen Bizkaiko lehendakariak irakurri zuen. Entzuleen artean, elkartearen bazkide ugariarekin batera, Ramon Labaien eta Luis Mari Mujika idazlea izan ziren.

ESANAK

JOSE MARIA SETIEN (Goztaina)

«Subiranotasunak, gauzatuko lukeena edozein izanik ere, errealitate soziala osatzen duten gizabanakoen eta kolektiboaren oinarriko giza eskubideen zerbitzuan egon behar du»

«Subiranotasuna nazio aniztasunaren alde jarri behar da, estatu nazionalistak sortzeko tentaldian erori gabe»

«Beharrezkoa izango da denok biltzen duen elkarriketa, zeinak aldaketaren premia eta beharra deskubritzen lagunduko duen»

PP

Quebecoko ereduaren alde dagoen argitzeko eskatu dio Aznarrek PSOeri

Agentziak | MADRIL

PSOE Quebecoko ereduaren alde dagoen ala ez jakin nahi du Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuako presidentek, Odon Elorza Donostiako alkateak (PSE-EE) eredu hori Euskal Herriko egokia izan daitekeela esan eta gero. Adierazpen horiekin «Estatu eredu zalanztan jarri» izana egotzi zion Elorzari Aznarrek, eta azalpenak eskatu zituen PSOeko goiburuei.

Aznarrek dioenez, herritarrek eskubidea dute PSOeren asmoak ezagutzeko; horrela, «PSOeren Estatu eredu» zein den argitzeko eskatu zuen, joan zen astean egin bezala. Jaime Mayor Oreja Eusko Legebiltzarreko PPko presidentearan arbera, «kezkarria» da Elorzak «beti tesi nazionalistekin bat egitea».

Mayor Orejak dio «burugabekeria» dela Setien Ibarretxeren aholkulari izatea

Agentziak | MADRIL

Jaime Mayor Oreja Eusko Legebiltzarreko PPko presidentek atzo adierazi zuenez, «burugabekeria» da Jose Maria Setien Donostiako gotzain ohi Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariaren aholkulari izatea. *El saque de Euskadi* liburuaren aurkezpenean esan zituen hitzok, Madrilen; ETA eta EAJ lotzen ditu liburu horrek, besteak beste.

El Correo egunkariak igandean argitaratu zuenez, Setien Ibarretxeren «aholkulari taldean» dago, beste bederatzi pertsonarekin batera, eta hiru hilean behin biltzen dira. Mayor Orejaren ustez, «ez da harrizkoa», baina hori ez da «leku aproposena». Leopoldo Barreda PPko eledunaren hitzetan, berriz, «EA, Batasuna edo Elkarriri lotutako elementu erradikalak gailentzen dira» talde horretan.